

Alaves ♦ Alacanteko 21 urteko erdilaria, gasteiztarrekin ariko da datozen hiru denboraldietan


Nacho Zaragoza, leku bila

Atzo aurkeztu zuen Alavesek bere azken fitxaketa

Erredakzioa / Gasteiz

JOAN den astean lotu zuen Alavesek Nacho Zaragoza erdilari gaztearen fitxaketa, eta atzo bertan aurkeztu zuten Mendizorrotzan. Datozen hiru denboraldietarako sinatu du Nacho Zaragozak, eta 700 milioi pezetako klausula ezarri diote. Titularren taldean leku bat egiteko «gogor» lan egitera datorrela esan zuen atzo jokalaria bere aurkezpenean, eta denboraldi-aurrea horretarako «azterketa bat» izango dela gaineratu zuen.

Alacanteko Herculesen hasi zuen bere ibilbidea Nacho Zaragozak, gaztetxoenen mailan. Azken bi denboraldiak Real Murcia taldean egin ditu —Bigarren Mailan aritzeko igoera lortu berri du talde horrekin—. Jokalaria garbi dauka lehen taldean izango duen postua denboraldi-aurrean egindako lanaren eta Jose Manuel Esnal *Mane* entrenatzailearen erabakiaren arabera izango dela. «Denboraldi-aurreak azterketa bat izan behar du niretzat, baina gaudituko dudalakoan nago. Egunero lan egin behar dut taldean leku bat egiteko. Kirol mailan, Alavesekin fitxatu izana aurrerapauso bat da nire ibilbidean,



Nacho Zaragoza, atzo Mendizorrotzan eginiko aurkezpenean.

eta erronkan handi bat ere bai», esan zuen jokalaria atzoko aurkezpenean.

Alavesek eman dion aukera eskertu zuen horregatik. «Aukera hau eman izana jada garrantzitsua da niretzat. Hiru denboraldietarako kontratua sinatu dut, eta ezin da dena bat-batean etorri. Denboraldi-aurrearen ostean lehenengo taldean amaitzen badut, asko hobeto, baina hi-

NACHO ZARAGOZA

■ ■ ■ «Denboraldi-aurreak azterketa bat izan behar du niretzat, baina gaudituko dudalakoan nago, taldean leku bat egiteko»

ru urte dauzkat hala ere lehen taldean sartzeko», adierazi zuen.

Murciarekin igoera lortu ostean talde baten baino gehiagoren eskaintzak izan zituela onartu zuen Zaragozak, baina Alavesena izan zela garrantzitsuena. Bere burua jokalaria bezala definitzeko eskatuta hau esan zuen: «Ongi iristen den erdilaria naiz, teknikoki ona».

hor zain

Javi Rodriguez katalana, Eibarrera

Datozen bi denboraldietan Eibar taldean ariko da Premia taldeko Javi Rodriguez, atzo lortutako akordioaren arabera. 22 urte ditu, Espanyolen harrobian osatua da, eta Palamos eta Premian ibilitakoa. Eibarren ariko den lehenengo jokalaria katalana izango da.

Athleticek gezurtatu egin du Fiorentinarekin ariko dela

Abuztuaren 19an jokatu du Athleticek aurkezpeneko partidua San Mamesen. Partidu horretarako kontrarioa Italiako Fiorentina izango zela eman zen aditzera atzo, baina gezurtatu egin du hori klubeko presidenteorde Txomin Guzmanek. Oraindik ez dutela inongo talderekin hitz egin argitu zuen Guzmanek.

Suker West Hamen ariko da

Datozen bi denboraldietarako kontratua sinatu zuen atzo Dabor Sukerrek —Sevilla, Real Madril eta Arsenalgo jokalaria ohia— Ingalaterrako West Ham taldearekin. Astean 5,3 bat milioi kobratuko ditu jokalaria kroaziarrak. Redknapp entrenatzaileak dio jarraitzaileen artean «arrakasta» izango duela.

Tenisa ♦ Tendinitisa dauka ezker hankako orkatilan

Sampras jokatzekotan da gaur

Agentziak / Londres

KAROL KUCERA-REN kontrako bere estreinako partiduan —lau setetan irabazi zuen—, min hartu zuen Pete Sampras estatubaturrak ezker hankako orkatilan, Wimbledongo Torneoan. Ospitalean izan zen atzo; tendinitisa duela esan zioten, eta tratamenduan jarri zuten. Gaur dauka bigarren partidua, eta, azken orduko larritasunik ezean, jokatu egingo duela jakinarazi dute medikuek. Samprasen entrenatzaile Paul Annacone ere jokatzeko moduan dagoela zioen: «Petek hazita dauka orkatila

eta likidua du barruan. Korrika egin dezake, baina ez du gaur 100 metroetako munduko errekorra apurtuko. Eskanerren ikusi da ez duela hezurrik minduta eta hori da garrantzitsuena». Samprasek Justin Gimelstob herrikidearen kontra dauka gaur partidua.

Kafelnikov eta Pierce kalera atzo

Atzo jokaturako jardunaldian izan zen ezustekoren bat edo beste. Gizonezkoetan, Efgeni Kafelnikov bosgarren zerrendaburua Wimbledonetik kanpora utzi zuen Thomas Jo-

hansonek ezustean (6-1, 7-6 eta 6-4). Emakumezkoetan, berriz, Magui Serna espainiarrak Mary Pierce hirugarren zerrendaburua utzi zuen atzo kanpora, eta jardunaldiko ezusteko nagusia eman zuen (7-6 eta 7-6).

Gainontzean Kuertenek eta Rafterrek aurrera egin zuten, hurrenez hurren, Justin Bower (6-4, 6-4 eta 7-5) eta Todd Woodbridge (6-3, 6-3 eta 6-4) kanporatuta. Michale Chang Torneotik kanpora gelditu zen, Alexander Popen kontra bost setetako partidua gogorra galdu ostean. Marat Safin ere kanporatu egin zuten atzo.

Emakumezkoetan, aurrera



Samprasek Gimelstob herrikidearen kontra jokatu du gaur.

egin zuten Monica Selesek, Lindsay Davenportek —iazko irabazlea— eta Arantxa Sanchez Vicariok besteak beste. Selesek Callens belgikarrari

irabazi zion (6-4 eta 6-4). Davenportek Lijovtseva utzi zuen kanpora (3-6, 6-3 eta 6-3), eta Sanchez Vicariok Rita Grande italiarra (6-3 eta 6-1).